

Txirrindularitza

ATZOKO ETAPAK EZ ZUEN ALDAKETARIK EKARRI, ETA BOARDMANEK JARRAITZEN DU LIDER

Cipollini, nor bestela?

■ Mario Cipollini Saeco taldeko esprinterrak irabazi zuen atzo Kataluniako Voltako bigarren etapa, aurreneko etapako lehen sektorea bezala. Atzoko etapa lasaia izan zen oso, eta ez zen aldaketarik izan sailkapen nagusian: Boardmanek jarraitzen du lider.

Erredakzioa / Donostia

MARIO CIPOLLINI. Nor bestela? Saeco taldeko esprinterrak ez du parerik helmugako azken zuzenean. Lehen etapako goizeko sektorean bezala, atzo ere bere nagusitasuna erakutsi zuen Mario El Belo-k. Bere atzetik HJeroen Blijlevens holandarra eta Mario Traversoni italiarra sailkatu ziren.

Atzoko etapa, Port Aventura eta El Vendrell bitartekoa (172,7 kilometro) lasaia izan zen oso, hasiera aldean behintzat. Txirrindulariek, bero izugarriaren ondorioz, erritmo motel antza ezarri zuten, eta kilometroak egitera baino ez ziren mugatu.

65. kilometroan, tropela hirugarren mailako Falseteko gaina igotzen hasi orduko, Andrea Ferrigato italiarrak eta Jacky Durand frantziarrak erritmo hori apurtu nahirik edo, ihesari ekin zioten, helmugako azken zuzen hori helburu. Chris Boardman liderraren taldeak, GANek, ihesaldia kontrolatua eduki zuen uneoro, beti bi minuturen azpitik mantenduz Ferrigato eta Duranden aldea.

Azkenik, helmugatik oso kilometro gutxi falta zirela irentsi zituen tropelak bi iheslariak. Horren ondoren, GAN taldeak Saecori utzi zion lekukoa, eta Cipolliniren taldeak erritmo bizibizia ezarri zuen esprinta bideratzeko. Haien atzetik, itzala bailiren, Blijlevensen TVMak eta Traversoniren Mercatone Unoko gizonak jarri ziren, baina bezperako etapam bezala, itzala izatearekin konformatu behar izan



Cipollinik nagusitasun handiz irabazi zuen atzoko etapa.

CARLOS ALBIR

zuten, gaur egun Cipolliniri itzala egingo dionik ez baitago. Beraz, atzoko etapam Cipolliniren palmaresa gizentzeko baino ez zuen balio izan. Saecoko esprinterrak bederatzi garaipen lortu ditu jada denboraldi honetan. Hala adiera-

zi zuen etaparen ostan: «Logika bete da. Uneotan esprinterrik onena naiz eta nire aurkari zuzenenak garaitu ditut. Tourrean Erik Zabel izango da nire aurkari nagusia». Aipatzekoa da, era berean, Gian Matteo Fagnini tal-

dekideak, betiko legez, bikain prestatu ziola esprinta. Fagninik berak ere postu oso ona lortu zuen helmugan.

Faboritoen artean ez zen aldaketarik izan, eta Olano, Escartin, Zarrabeitia, Bolts edo Casero bezalako txirrindulariak kilometroak egitera mugatu ziren, izango baita oraindik indarrak probatzeko eta agortzeko leku aproposagorik.

Gaur hirugarren etapa jokatu da Tarragonako El Vendrell eta Bartzelonako Sants auzo bitartean. Txirrindulariek beste 151,3 kilometro egin beharko dituzte Mediterraneoko kostaldetik barrena, atzoko legez bero handia pasatuz. Etapan mendate bakarra egongo da, hirugarren mailako Castellbisbal, lasterketako 99. kilometroan. Txirrindulariak arratsaldeko 16:30etan sartuko dira Bartzelonan eta han sei itzuli eman beharko dizkiote Sants auzoan prestatutako zirkuitu batean. X

sailkapenak

Etapako sailkapena

1. Mario Cipollini (Saeco)4.14.31.
2. Jeroen Blijlevens (TVM)d.b.
3. Mario Traversoni (Mercatone)d.b.
4. Gian Matteo Fagnini (Saeco)d.b.
5. Angel Edo (Kelme)d.b.
6. Fabiano Fontanelli (Mercatone)d.b.
7. Jann Kirsipuu (Casino)d.b.

Sailkapen nagusia

1. Chris Boardman (Gan)6.20.50.
2. Marco Velo (Mercatone)05era.
3. Abraham Olano (Banesto)10era.
4. Uwe Peschel (Estepona)10era.
5. J. Carlos Dominguez (Vitalicio)13ra.
6. Viatcheslav Ekimov (Us Postal)14ra.
7. Meltxor Mauri (Once)15era.

Futbola

Gaizka Garitanok Eibarren jokatu du hurrengo denboraldian

■ Athleticekin bi denboraldietarako fitxatu arren, Gipuzkoako taldean jokatu du utzita

Erredakzioa / Donostia

GAIZKA GARITANO Bilbao Athleticeko jokalaria Eibarren jokatu du datorren denboraldian. Garitanok bi denboraldietarako fitxatu du Athleticekin, baina datorren denboraldian Eibarren jokatu du, bi taldeek duten hitzarmena dela medio.

Gaizka Garitanoren atzetik Eibar bera eta Miguel angel Lotina euskaldunaren Numanci taldea zebiltzan. Zuri-gorri gazteak, ordea, nahiago izan du etxean gertatzea, edo etxetik gertu behintzat.

Mario Bermejoren kasua, berriz, argitzeke dago oraindik. Zuri-gorri gaztea Eibarrek eta Numanciak nahi zuten hasiera batean, eta Athleticek ez zion eragozpenik jarri jokalaria joan nahi bazuen joateko. Ordea, azken egunotan Numanciako entrenatzaileak, Lotinak, esan du ez dutela Bermejo fitxatu nahi. Beraz, badirudi Eibarren bukatu dezakeela, baina jokalaria berak Bilbon gertatzeke nahi agertu du, eta ezin da jakin non gertatuko den. X

Eskubaloia

Angel Montiel hegalk bi urteko kontratua sinatu du Bidasoarekin

Erredakzioa / Donostia

HONDARRABIA taldean azken bi denboraldiak egin ondoren Angel Montiel hegalk datorren bi denboraldietan Irungo Bidasoa taldean jokatu du atzo kontratua sinatu ostean. 21 urte, 82 kilo eta 1,84ko luzerako Montielek Bidasoako azpiko taldeetan hasi zuen bere eskubaloiko ibilbidea eta gero Errenteria-ko Ereintza taldean aritu zen utzita. Bidasoarekin 2000. urtera arteko kontratua sinatu duen ezker hegalk gazteak Euskadiko kadete eta gazte mailako txapelkun izan da. Montielen fitxaketa ez da Bidasoak denboraldi berrirako egin duen bakarra. Orain egun gutxi Gudelj kroaziarra denboraldi baterako kontratua sinatu zuen Irungo taldearekin eta Frantsouzov errusiarra ere datorren denboraldian Bidasoan ariko da. X

ROLLING STONES-EN KONTZERTUA

SARREREN ZENBATEKOA ITZULTZEA

Athletic Clubek hurrengo toki hauetan itzuliko du Rolling Stonesen kontzerturako sarreraren zenbatekoa, sarrerak entregatu ondoren:

SAN MAMESEKO TXARTELDEGIAK

Astelehenetik aurrera, ekainak 22, lanegunetan, ordu hauetan:

Goizetan: 10:30etatik 13:00etara

Arratsaldeetan: 17:00etatik 20:00etara

BILBAO BIZKAIA KUTXAREN BULEGOAK (BBK)

Astelehenetik, ekainak 22, ostegunera arte, ekainak 25, biak barne, bulego orduetan.

SALTOKIAK

Ostegunetik, ekainak 25, hurrengo saltoki hauetan:

Donostia: Frudisk

Iruñea: Chaston, Kilkir

Baiona: Disco Shop

906 42 43 42 TELEFONOA

Dena delakoagatik telefonoa erabili nahi dutenek goian aipatu telefono horretara deitu beharko dute astelehenetik aurrera, hilak 22, 9:00etatik 19:00ak arte, etenik gabe. Sarreraren zenbatekoa jasotzeko behar duten informazio guztia emango zaie.

OHARRA: Kontzertua ikusi nahi zutenei eskatzen zaie sarrera erosi zuten toki berean itzultzeko.

Athletic Clubek informazioa ematen jarraituko du hurrengo egunetan.

Jalabert nagusi Suitzako Itzuliko laugarren etapam

■ Once-koak esprintean hartu zien aurre besteei

Erredakzioa / Donostia

LAURENT JALABERT Once taldeko txirrindulariak esprintean irabazi zuen atzo Suitzako Itzuliko laugarren etapa, Oberwall eta Varesse bitartekoa (208, 8 kilometro).

Sailkapen nagusian ez zuen aldaketa handirik ekarri atzoko etapam, eta Davide Rebellek jarraitzen du lehen postuan.

Jalabertek, ordea, 10 segunduko bonifikazioa lortu zuen atzoko etapam, eta orain liderrarengandik 17 segundura dago. Beat Zberg eta Stefano Garzelli ere alde puska bat jan zioten Davide Rebellen liderrari, nahiz eta hau ere nahiko aurrean helmugaratu zen, seigarren lekuan hain juxtu.

Gaur bosgarren etapa jokatu da Malpnesa eta Lenzerheide bitartean (225, 8 km.). X

sailkapenak

Etapako sailkapena

1. Laurent Jalabert4.59:42.
2. Beat Zberg (Rabobank)d.b.
3. Stefano Garzelli (Mercatone)d.b.
4. Bjarne Riis (Telekom)d.b.
5. Vladimir Dumad.b.

Sailkapen nagusia

1. Davide Rebellin (Polti)8.22.52
2. Laurent Jalabert (Once)17ra.
3. Beat Zberg (Rabobank)26ra.
4. Stefano Garzelli (Mercatone)35ra.
5. Wladimir Belli (Festina)44ra..